

## AMAREN/AITAREN BAIMENA ADINGABEAK KIROL-EKITALDIAN PARTE HARTZEKO

Amaren / aitaren datuak

IZEN-ABIZENAK	NAN*

Adingabearen datuak

IZEN-ABIZENAK	NAN (baldin badu)*	Jaiotze-data

\* *Fotokopia erantsi*

Adingabearen ama/aita edo tutore gisa, idatzi honen bidez, **BAIMENA EMATEN DIOT** gaurko kirol-ekitaldian parte hartzeko.

Horrez gain, hau **ADIERAZTEN DUT**:

- 1.- Guztiz ezagutu eta onartzen ditut probaren araudia eta esku-hartzen duten beste entitateen arauak eta zirkularrak.
- 2.- Semea/alaba egoera fisiko egokian eta behar bezala prestatuta dago jarduera honetan parte hartzeko.
- 3.- Semeak/alabak ez dauka gaixotasunik, akats fisikorik edo lesiorik jarduera honetan parte hartzean larriagotu daitekeenik eta osasunean kalte larria eragin dezakeenik.
- 4.- Semeak/alabak lesioren bat, akats fisikoren bat edo jarduera honetan parte hartzean larriagotu edo osasunean kalte larria eragin dezakeen bestelako egoeraren bat baldin badauka, horren berri emango diot antolakuntzari, eta probaren arduradunek horri buruz hartzen dituzten erabakiak onartuko ditut.
- 5.- Baimena ematen diot ekitaldiaren antolakuntzari, semeak/alabak ekitaldi honetan izandako parte-hartzearekin lotutako argazkiak, filmaketak, grabaketak edo bestelako materialak erabiltzeko, ordain ekonomikorako eskubiderik gabe.
- 6.- Antolatzaile, kolaboratzaile eta boluntarioak salbuesten ditut beren funtzioak betetzerakoan egindakoagatik izan ditzaketen erantzukizun guztietatik.
- 7.- Lege-oharra irakurri dut eta onartzen dut.

20\_\_ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_a.

Ama/aita edo legezko tutorearen sinadura.

### LEGE OHARRA

*Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu dokumentu/orrialde/formulario hau betetzean eskuratutako datu pertsonalak gure fitxategietan tratatuko direla, ekitaldi honetan parte-hartzea antolatu eta kudeatzeko helburu bakarrarekin, zuk egindako eskaeraren arabera. Bereziki babestutako datuak jarduera horietako parte-hartzea kudeatzeko soilik tratatuko dira, eta konfidentzialtasun zorrotzera zainduko da datu horien gainean.*

*Baimena noiznahi ezeztatu ahal izango duzu, eta eskubidea daukazu, baita ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, lege ezarritako baldintzetan. Horretarako, fitxategiaren arduradunarengana jo beharko duzu.*